





AURKIBIDEA

Testuingurua. EAEko udalerriek zergatik lan egin behar dute GJHen ikuspegitik eta haien kokapena bizkortu? GJHak udal-estrategian eta udal-kudeaketan gehiago txertatzeko beharra	3
Erreferentzia-esparru estrategiko baten proposamena, EAEko udalerrietan GJHen kokapena bizkortzeko. Tokiko lan-ardatzak eta erakundeen arteko laguntzarako palankak	8
Kokapenean laguntzeko eskura dauden tresnak	13



TESTUINGURUA.
EAEko udalerriek zergatik
lan egin behar dute GJHen ikuspegitik
eta haien kokapena bizkortu?

GJHak udal-estrategian eta udal-kudeaketan
gehiago txertatzeko beharra





TESTUINGURUA

2030 AGENDA ETA GJHaK, ETA HORIEN HEDAPENA GLOBALETIK TOKIKORA

2030 Agenda Nazio Batuen esparruan lortutako akordioa bat da, 2030ean mundu bidezkoago, ekologiko, oparoago eta baketsuago bat izaten lagunduko duten Garapen Jasangarrirako 17 Helburu (GJH) erdiesteko. Jasotako akordiotik haratago, batez ere erakundeen konpromisoa ezartzen du garapen-eredu jasangarriagoa gauzatzeko.

Estatuen mailan sinatutako konpromisoa da, baina bere sorreratik bertatik bultzatzen du beste maila instituzional batzuek konpromisoarekin bat egitea. Gurean, Eusko Jaurlaritzak 2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programa dauka. Programa horrek, hainbat proiektu enblematiko ezartzeaz gain, gai honetan erakundeen eta gizartearen arteko lankidetza helburu gisa ezartzen du, gobernantza partekatuaren eredua baten pean, zeinak Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Eragile Anitzeko Foroa adierazle nagusitzat baitu.

Era beran, Foru Aldundiak eta udalerri asko 2030 Agendak diseinatzen eta ezartzen ari dira. Agenda horiek estrategia propioak dira, lurralde bakoitzeko premia eta aukera zehatzei erantzuten dietenak, baina, aldi berean, lankidetzaren balioa funtsezko elementu gisa txertatzen dutenak.





TESTUINGURUA

GJHen IKUSPEGITIK EGINDAKO UDAL EKINTZA AGINTALDI BERRIAREN AURREAN

Dokumentu hau une estrategiko batean kokatuta dago euskal udal-ekintza GJHen ikuspegitik garatzeko: 2023-2027 agintaldi berria.

Ia 8 urte igaro dira 2015eko irailean NBEren Batzar Nagusiak Garapen Jasangarrirako 2030 Agenda onartu zuenetik, eta, 2030eko abenduko denbora-helmugatik, gero eta gertuago gaude.

Urte hauetan zehar, euskal udalerriek argi erakutsi dute 2030 Agenda globalarekin duten konpromisoa, eta hainbat tresna diseinatzen eta ezartzen aritu dira kokapen hori aktibatzeke. Kasu askotan, lankidetzan oinarritu eta ditugun udal-sare ezberdinen bultzada erabili dira. Eta, halaber, Euskadiko 2030 Agendan modu aktiboan parte hartu dute, giza-garapen jasangarriarekiko agenda eta herrialde-konpromiso gisa.

Euskal udalerrietan, kontuan hartuta 2030 Agenda globalaren bidaiaren erdian eta 2023-2027 agintaldi berriaren errealitatean gaudela, **agintaldi berri honek euskal udalerrietan GJHen kokapenaren bizkortzean bilkatu behar du**. Horretarako, egindakoa sendotu eta tokiko gobernu berrien estrategietan kokapenaren dimentsio berriak txertatu beharko dira.

Nazio Batuek hamarkada hau “GJHen aldeko ekintza-hamarkada” izendatu dute. Ildo berean, Euskadiko 2030 Agendak [“Now, 2030”](#) proposamena abiatu du, 2023. urtea GJHak betetzeko inflexio-puntu globala eta tokikoa izan dadin. Gainera, “Now, 2030” proposamenak tokiko gobernuak hartu nahi ditu kontuan GJHen kokapen eta gobernantzan, apurka-apurka eta etengabe, hamarkada honen amaieran GJHei buruz egingo den balantzea hobetzeko.





TESTUINGURUA

ZER EMATEN DIETE GJHeK UDAL-ESTRATEGIARI ETA UDAL-KUDEAKETARI?

GJHeK **udalerriek erabaki onenak har ditzaten baliagarri izan behar dute**. Erabaki orekatuagoak behar dira garapen jasangarriaren dimentsio guztien artean -ekonomikoa, soziala eta ingurumenekoa-, baita epe labur, ertain eta luzeen artean ere.

Erabakiok udalerri bakoitzetik tokiko erronkei zein erronka global handiei erantzuten laguntzeko moduko politikak, zerbitzuak eta programak bilakatzen dira, zehazki, 3 trantsizio handi hauei erantzuteko: sozio-demografikoa, energetiko-klimatikoa eta ekonomiko-digitala. Eta, era berean, egoeraren arabera baina aurrekoak bezain inportanteak diren erronkei erantzuteko, hala nola, pandemiatik irteteari edo Ukainiako gerrak eragindako egoerari.

Erabaki horiek, batez ere, bat etorri behar dute tokiko komunitatea osatzen duten pertsonen eta eragileen premiekin eta lehentasunekin, udal- zein lurralde-mailan. Eta 17 GJHeK eta 2030 Agendak “itsasargi-gidari” bat izan behar dute, erakunde gisa egiten den ekarpena motor bilakatu dadin, gizarteari aurrera egiten laguntzeko.

GJHeK **kudeatzako moduari buruzko ikuspegi berritzailea** ere ematen dute. Izan ere, gobernantzaren elementuak balioan jartzen baitituzte, hala nola, parte-hartzea, lankidetzak, kontuak ematea... Elementu horien artean, “ aliantzek” eta, zehazki, barne-aliantzek, berebiziko garrantzia daukate, horiei esker, lurralde bateko erakundeak eta gizarteak elkarrekin lanean aritzen direlako GJHak ezartzen

EZ GARA HUTSETIK ABIATZEN. IBILBIDEA DUGU ETA EMAITZAK LORTU DITUGU

Euskadiko 2030 Agenda udal-mailan txertatzeko, nabarmentzekoa da EUDELen eta Trantsizio Soziala eta 2030 Agendaren Idazkaritza Orokorren artean sinatutako esparru-akordioa, tokiko gobernuen artean Euskadiko 2030 Agendaren koordinazioa, ordezkaritza eta bultzada indartzeko.

Horrela, Euskadiko Udalen Elkartearen esku geratzen da Tokiko Gobernuen koordinazioa eta ordezkaritza Euskadiko 2030 Agenda garatzeko prozesuan, EUDELeK Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Eragile Anitzeko Foroan duen parte-hartze aktiboa barne.

Gainera, euskal udal askok, GJHak bultzatzeko nazioarteko ildoari jarraituz, euren berezko 2030 Agendak edo pareko tresnak dituzte, hala nola, Hiri Agendak.



EUSKAL UDALEN ZEREGINA 2030 AGENDAREN ERAKUNDEARTEKO LANEAN

Mundu osoko udalek tokiko esparruan jardun behar dute, testuinguru globala alde batera utzi gabe. Testuinguru globalak eta mundialak GJHen alorrean lan egitearen aldeko apustua egiten du, eta gure udalerrietako gizarteak ere zeharkakoagoak diren politika eta eragin handiagoa lortzeko modukoak eskatuko ditu.

Zeregin hori errazteko, jarraian **eredu proposamen bat eta laguntza-tresnak garatuko dira, asmo guztiz proposatzaileak direnak eta udal-autonomia errespetatzen duen testuinguru batean eginak.**

Udalerrientzat neurrira egindako tresnak dira helburu bakar honekin: Tokiko Gobernu bakoitzak gai horretan konprometitzeko eta lan egiteko modua erabakitzea. Ez da ahaztu beharko mundu-mailako joera GJHen alde lan egitea dela eta Euskadiko 2030 Agendak bultzatzen duen elkarlanak udal-ahalegin txiki bakoitza jaso nahi dituela, planetaren erronka handiei Euskadik egiten dien ekarpen globalago baten zati gisa ikus dadin.






Erreferentziazko esparru estrategiko baten proposamena, euskal udalerrietan GJHen kokapena arintzeko.

Tokiko lan-ardatzak eta erakundeen arteko laguntzarako palankak



EUSKAL UDALERRIETAN GJHen KOKAPENA BIZKORTZEKO ERREFERENTZIAZKO ESPARRU ESTRATEGIKOA

Hurrengo grafikoan, **EUDELeK GJHen kokapena bizkortzeko proposatutako esparru estrategikoa** laburbiltzen da.





TOKIKO LAN-ARDATZAK, EUSKAL UDALERRIETAN GJHak KOKATZEN AURRERA EGITEKO

Tokiko 4 lan-ardatz osagarri proposatzen dira, euskal udalerriek GJHen kokapenean aurrera egin dezaten eta GJHak, udal-ekintzaren funtsezko elementu gisa, zeharkakoak izan daitezen.

4 ardatz horiek landu litezkeen dimentsio osagarriak barne hartzen dituzte, eta ardatz edo dimentsio bakoitzerako irismen-maila desberdinak ezartzeko aukera ematen dute, udalerri bakoitzaren gaitasunen, aurreko ibilbidearen, lehentasunen eta abarren arabera.

1. ardatza- GJHak UDAL-ESTRATEGIAREN BARRUAN

GJHak udal-estrategian txertatzea da helburua, garenaren DNAn eta erakunde publiko gisa diseinatzen eta gauzatzen ditugun plangintza ezberdinen DNAn txertatzea, alegia.

Txertatze hori hainbat lan-ildo (osagarri)ren bitartez lor daiteke:

- **Udal-estrategian eta estrategia hori garatzen duten tresnetan GJHak zeharka txertatzea:** sektore/lurralde-estrategiak eta -planak, aurrekontuak... Berezko ezaugarriak dituzten tresnak dira, baina haien plangintza-elementuek GJHekiko lerrokatzea, haien edukia egokitze eta osatzeko, baliagarria izatea erraztu dezakete, horiei erantzuteko.
- **Berezko planak edo 2030 Agendak diseinatzea,** udalerri bakoitzak bere errealiterako egokien jotzen duen formatuan:
 - ☐ Tokiko 2030 Agenda.
 - ☐ Hiri Agenda.
 - ☐
- **GJHek aurkezten dizkiguten helburu globalak aprobetxatzea tokiko helburu horiekin lotutako beharrei eta aukerei erantzuteko moduko proiektu eraldatzaileak garatzeko.** Ahal den neurrian, lankidetzan oinarritutako proiektuak, bai barnekoak (tokiko eragileekin egindako barne-aliantzetan garatutako proiektuak), bai kanpokoak (beste udalerri batzuekiko proiektuak, maila anitzeko eta eragile anitzeko lankidetzak-proiektuak).





TOKIKO LAN-ARDATZAK, EUSKAL UDALERRIETAN GJHak KOKATZEN AURRERA EGITEKO

2. ardatza- TOKIKO ERAGILEAK AKTIBATZEA, GJHen IKUSPEGITIK

Gure udalerriak GJHei egiten dien ekarpena **lurraldean aritzen diren eragile guztien konpromisoa lortzeko** prozesu baten buru izatea litzateke.

Horrek esan nahi du udalerriko gainerako eragileak (enpresak, gizarte-elkarte ehuna, herritarrak) aktibatu behar direla GJHein bat etortzeko eta GJHetan laguntzeko. Hasteko, beharrezkoa da 2030 Agendaren eta GJHen mugimendu globalak zer ordezkatzeko duen hobeto jakitea, eta mugimendu global horrek toki-mailan isla izan dezakeela eta izan behar duela ulertzea.

GJHen ikuspegitik lan egitea gure udalerrien eta bertan bizi diren pertsonen etorkizun hobe baten alde jardutea da.

Ardatz horretan, **garatu beharreko ekintzak, funtsean, hedapen- eta prestakuntza-ekintzak lirateke**, baina, era berean, berezko ekintzen eta tokiz gaundiko mailan garatzen diren eta sektore publikoaren, pribatuaren eta sozialaren arteko elkarbizketa dakarten tresnen aprobetxamenduaren arteko batura izan litezke.

3. ardatza- UDAL-KOMUNIKAZIOA GJHen IKUSPEGITIK

GJHak helburu bikoitzarekin lantzean datza, komunikazioaren ikuspegitik.

Alde batetik, **GJHek eskaintzen diguten logika aprobetxatzean datza, sortzen dugunaren komunikazioa indartzeko eta hobetzeko**. Gure ekintzak komunikatiboki lotzeak, GJHei nola laguntzen dieten kontuan hartuta, herritarrek hobeto ulertuko dute “zertarako” egiten ditugun, eta tokiko erakunde gisa egiten dugunak lurraldea eta bertan bizi direnen bizitza-kalitatea nola hobetzen dituen.

Bestetik, **udal-jardueraren komunikazio global espezifiko egitea, GJHei dagokienez**. Horri **“Borondatezko Tokiko Txostenak”** esaten zaio. Tokiko erakunde batek aurreko ekitaldian bere lurraldean 2030 Agenda globalari egindako ekarpena zehazten duten urteko memoriak izan ohi dira. Txosten horiek 2030 Agenda kokatuta duen **udal bakoitzarenak** izan daitezke edo **kolektiboak**, 2023tik aurrera Eusko Jaurlaritzak Nazio Batuetara bidaliko duen Borondatezko Txostenaren kasuan bezala. Txosten horrek euskal erakunde-maila guztietatik egindako lana jasoko du.





TOKIKO LAN-ARDATZAK, EUSKAL UDALERRIETAN GJHak KOKATZEN AURRERA EGITEKO

4. ardatza- GOBERNANTZA KOKAPENAREN FUNTSEZKO ARDATZ GISA

Udal-gobernantza sendotzean datza, udalerrirako jasangarriagoa den tokiko garapen-eredu bat kokatzeko eta horretan sakontzeko funtsezko ardatz gisa.

Ardatz honetan sartuko lirateke **zeharkako izaera duten bi GJHekin lotutako gobernantza bikainaren, irekiaren eta lankidetzakoaren printzipioak eta praktikak indartzera** bideratutako ekintzak, **bi GJH horiek ezinbestekoak baitira gainerako GJHetan modu eraginkorrean aurrera egiteko:**

- **16. GJHak** instituzio sendoez hitz egiten digu, eta berariaz aipatzen du kontuak ematen dituzten erakunde eraginkorrak eta gardenak garatzea eta herritarren parte-hartzea bermatzea erabakiak hartzerakoan .
- **17. GJHak** aliantzez hitz egiten digu, baita eremu publikoan, publiko-pribatuan eta gizarte-zibilean aliantza eraginkorrak sustatzeaz eta bultzatzeaz ere.





Kokapenean laguntzeko eskura dauden tresnak



KOKAPENEAN LAGUNTZEKO ESKURA DAUDEN TRESNAK

UDALETAN ERABILTZEKOAK

- [“TOKIKO 2030 Agenda. Nola heldu Garapen Iraunkorreko Helburuei toki-eremutik” Gida Praktikoa](#)
- [Udal-aurrekontuak GJHein lerrokatzen hasteko gida praktikoa](#)
- [2021-2024 udal-sustapeneko proiektu kolaboratiboak, Euskadiko 2030 Agendari laguntzeko](#)
- [2030 Agendaren Garapen Iraunkorreko adierazleak \(EUSTAT\)](#)
- [Tokiko Gobernantzaren Bikaintasuneko ELoGE Programa](#)
- [EUDELen informazio- eta laguntza-zerbitzua, Europako fondoen arloan](#)
- [2030 Agendari buruzko prestakuntza espezifiko programa, udaletako teknikarientzat \(Zeharkako Prestakuntza Plana\)](#)

UDALERRIKO BESTE ERAKUNDE BATZUETAN EDO/ETA HERRITARREI ZUZENDUTAKOETAN ERABILTZEKOAK

- [Enpreetan eta erakundeetan 2030 Agenda garatzeko gida](#). GJHak udalerriko enpresen eta erakundeen kudeaketan sartzeko.
- [2030 Agenda ulertzeko prestakuntza-ikastaroak, Eusko Jaurlaritzak sustatuak](#). Oinarritzko ikastaroak, enpresei, gizarte-erakundeei eta herritarrei zuzenduak.

IRAKURTZEKO MODUKO BESTE DOKUMENTU INTERESGARRI BATZUK

[Euskadiko 2030 Agenda. 2030 Agendaren lehentasunen euskal programa, 2021-2024 \(Dokumentu osoa\)](#)

[Euskadiko 2030 Agenda. 2030 Agendaren lehentasunen euskal programa, 2021-2024 \(Laburpen exekutiboa\)](#)

[Euskadiko 2030 Agendaren Borondatezko 6. Jarraipen Txostena \(2022ko ekitaldia\)](#)

[Now, 2030 proposamena](#)

[2030 Agendako eta Trantsizio Sozialeko Eragile Anitzeko Foroaren 2022ko Memoria eta 2023ko Kudeaketa Plana](#)



"TOKIKO 2030 AGENDA. NOLA HELDU GARAPEN JASANGARRIAREN HELBURUEI TOKIKO EREMUTIK" GIDA PRAKTIKOA



ZER DA?

Udalsarea 2030ek eginiko gida da, Tokiko 2030 Agenda idazteko behar diren jarraibideak errazteko, GJHak eta horien xedeak udalerrien testuingurura egokituz.

Gidak Garapen Jasangarrirako Adierazleen egokitzapena udal-testuingurura eta udalerriek GJHei egindako ekarpena neurtzeko proposamen bat ere eskaintzen ditu.

ZEIN ERABILERA DU UDAL BATENTZAT?

Tokiko 2030 Agenda edukitzeko garatu beharreko prozesua azaltzen du. Era berean, Udalsarea 2030ek eskainitako koordinaziopean udalerriak GJHei egindako ekarpenaren jarraipena egitea ahalbidetzen du.

GIDARAKO ESTEKA

["TOKIKO 2030 Agenda. Nola heldu Garapen Jasangarriaren Helburuei tokiko eremutik" Gida Praktikoa](#)

INFORMAZIO GEHIAGO ETA KONTAKTUA

✉ udalsarea2030@ihobe.es

☎ 944 230 743

💻 udalsarea2030.eus



UDAL AURREKONTUA GJHEKIN LERROKATZEN HASTEKO GIDA PRAKTIKOA



ZER DA?

EUDELe eginiko gida, udaleko arlo ekonomikoak udal-aurrekontua GJHein lerrokatzeko egin beharreko lana errazteko.

Lerrokatze hori gauzatzeko asmoa duten udalei hasierako erantzuna emateko sortu den gida da, bereziki aurrekontu-pedagogiaren ikuspuntutik. Halaber, gidak lerrokatze horren emaitza herritarrei eman beharreko informaziora hurbildu nahi du, emaitzen txostena egiteko txantilo baten bitartez.

ZEIN ERABILERA DU UDAL BATENTZAT?

EUDELe proposatutako metodologia modu errazean aplikatzea, aurrekontu-araudian oinarrituta, udal-aurrekontua GJHein lerrokatzeko. Horrez gain, honako hauek eskaintzen ditu:

- Excel txantilo bat, aurrekontu-lerrokatzea egiteko.
- Word txantilo bat, emaitzen txostena egiteko.

GIDARAKO ESTEKA

[Udal aurrekontua GJHein lerrokatzen hasteko gida praktikoa](#)

INFORMAZIO GEHIAGO

Tresna hau sakontzen eta hobetzen ari da erakunde arteko proiektu baten esparruan, euskal erakunde oinarritzko metodologia bat zehazteko, aurrekontuak GJHein lerrokatuz.

KONTAKTUA

✉ eudel@eudel.eus

☎ 944 231 500

💻 www.eudel.eus/destacados/ods-agenda2030/eu/gidapraktikoa/



2021-2024 UDAL-SUSTAPENENKO PROIEKTU KOLABORATIBOAK, EUSKADIKO 2030 AGENDARI LAGUNTZEKO



ZER DA?

Euskal udalerriek Euskadiko 2030 Agendan duten parte-hartzea islatzen duen dokumentua da, euskal udal-sare ezberdinak erabiliz elkarlanean garatzen diren tokiko sustapeneko 15 proiektuen bitartez.

ZEIN ERABILERA DU UDAL BATENTZAT?

GJHen 4 eremu handitako abian dauden proiektuen zerrenda bat izatea (garapen soziala, garapen ekonomikoa, ingurumen-jasangarritasuna eta gobernantza), parte hartu ahal izateko.

PROIEKTUEN INFORMAZIOA DUEN DOKUMENTURAKO ESTEKA

[2021-2024 udal-sustapeneko proiektu kolaboratiboak, Euskadiko 2030 Agendari laguntzeko](https://www.eudel.eus/destacados/ods-agenda2030/eu/contribucion/)

INFORMAZIO GEHIAGO ETA KONTAKTUA

<https://www.eudel.eus/destacados/ods-agenda2030/eu/contribucion/>

Proiektuei buruzko informazio gehiago izateko eta/edo horietan parte hartu ahal izateko, jarri zuzenean harremanetan proiektuak sustatzeko ardura duten udal-sareekin (ikusi hurrengo orrialdeko taula).





PROIEKTUAREN IZENA	SARE BULTZATZAILEA	INFORMAZIO GEHIAGO ETA KONTAKTUA
1.- Ikuspegi feminista duen zaintza erantzunkidetasunezko tokiko eredua	Berdinsarea	
2.- Berdintasunaren aldeko Tokiko Hautetsien Sarea	Berdinsarea	berdinsarea.eus/eu/sarea ☎ 944 231 500
3.- Emakumeen kontrako indarkeriaren biktimen laguntza eta arreta osorako tokiko koordinazio protokoloak eguneratzea	Berdinsarea	✉ berdinsarea@berdinsarea.eus
4.- Basqueskola sarea indartzea tokiko politikan emakumeen eragitea eta parte hartzea bultzatzeko	Berdinsarea	
5.- Uraren eta saneamenduaren erakundearen arteko lankidetzat programa Euskadi eta Erdialdeko Amerikaren artean	Euskal Fondoa	euskalfondoa.eus/eu ☎ 943 428 508 ✉ euskalfondoa@euskalfondoa.eus
6.- Bizileku bazterketa egoera txarrean dauden pertsona kopuruaren zenbaketa eta diagnostikoa	Berrituz	berrituz.eus/eu
7.- Euskadi Lagunkoia, adinekoentzat lagunkoiak diren udalerriak	Euskadi Lagunkoia	euskadilagunkoia.net/eu ☎ 943 224 146 ✉ info@euskadilagunkoia.net
8.- Mugiment. Pertsona aktiboak	Mugiment	mugiment.euskadi.eus/hasiera
9.- A8: enplegarritasuna hobetzeko ibilbide integralak	Garapen	
10.- Zaindu/InguruarEkin, ekintzailatza jasangarriaren sustapena	Garapen	garapen.net/eu/hasiera/ ☎ 944 243 223 ✉ garapen@garapen.net
11.- Trantsizio digitalaren bulego-sarea	Garapen	
12.- Tokiko klima ekintza 2030 Udalsarea aintzat hartuz. Klima eta energiaren udaletxeen ituna	Udalsarea	
13.- Ekonomia zirkularra eta leihakortasunaren sustapena tokiko mailan	Udalsarea	udalsarea2030.eus/hasiera ☎ 944 230 743 ✉ udalsarea2030@ihobe.es
14.- 2030 Agendara eta GJHetara bideratutako tokiko gobernantza: toki ekintza eta jasangarritasun politiken ebaluazioa	Udalsarea	
15.- ELoGE, gobernantza bikaintasunerako zigilua	EUDEL	eloge.eudel.eus/eus ☎ 944 231 500 ✉ gobernanza@eudel.eus



2030 AGENDAREN ADIERAZLEAK GARAPEN JASANGARRIKO (EUSTAT)

HELMUGA 1.2 2030. urterako, gutxienez erdira jaistea pobrezian, bere dimentsio guztietan (definizio nazionalen arabera), bizi diren gizon, emakur guztietako haurren proportzioa

1.2.1 Pobrezia-atalase nazionalaren azpitik bizi den biztanleriaren proportzioa, sexuaren eta adinaren arabera banatuta

	Udalerriak	Unitatea	Urtea	Datua	Oinarri-urtea
Pobrezia erlatiboko arriskuan dauden pertsonen proportzioa, pobrezia-atalase nazionala kontuan hartuta	➔	%	2020	9,84	2014
Pobrezia erlatiboko arriskuan dauden pertsonen proportzioa, pobrezia-atalase autonomikoa kontuan hartuta	➔	%	2020	17,77	2014
Pobrezia erlatiboko arriskuan dauden eta egotzitako alokairua duten pertsonen proportzioa, pobrezia-atalase nazionala kontuan hartuta	➔	%	2020	8,61	2012
Pobrezia erlatiboko arriskuan dauden eta egotzitako alokairua duten pertsonen proportzioa, pobrezia-atalase autonomikoa kontuan hartuta	➔	%	2020	16,37	2016
Batez besteko errenta pertsonala	➔	€	2020	22.343	2015
Batez besteko errenta erabilgarri pertsonala	➔	€	2020	18.699	2015

ZER DA?

Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako 2030 Agendaren adierazleekin lerrokatutako adierazle-sistema bat da. Eustat - Estatistikako Euskal Erakundea arduratzen da sistemaren kalkulu-metodologiak eta hori eguneratzeaz.

Sistema horrek 17 GJHei buruzko adierazleak biltzen ditu, ahal den guztietan udal-mailan bereizita.

ZEIN ERABILERA DU UDAL BATENTZAT?

Estatistika ofizialek datoen, eta, hortaz, fidagarriak diren adierazleen banku bat izatea, 2030 Agenda globalarekin lerrokatuta, udalerrri batean, GJHei dagokienez, gertatzen ari den aurrerapena neurtzeko, beste udalerrri batzuekin alderatzeko, eta lortu beharreko helmuga kuantitatiboak zehazteko.

ADIERAZLEEN BAKURAKO ESTEKA

[2030 Agendaren Garapen Iraunkorreko adierazleak \(EUSTAT\)](#)

INFORMAZIO GEHIAGO

Eskainitako adierazleak etengabe eboluzionatzen eta hobetzen ari dira, Eusko Jaurlaritzako Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiak eta Eustat - Euskal Estatistika Erakundeak koordinatutako erakunde arteko lantalde baten bidez.

KONTAKTUA

✉ webmaster_eustat@eustat.eus

☎ 945 017 500

💻 eu.eustat.eus/indice.html



TOKIKO GOBERNANTZAREN BIKAINASUNEN ELOGE EUROPAKO ZIGILUA



ZER DA?

Europako Kontseiluko Gobernantzaren Bikaintasuneko Zigiluak (ELoGE) tokiko gobernuen kalitate gorenari ziurtatzen du, 12 printzipio eta 97 adierazleren arabera. Udal-gobernu batean gobernu onak eta berrikuntza demokratikoak neurtzeko Europa mailako aintzatespen handiena da.

2017tik, EUDEL da Euskal Udaletan Zigilua ezartzeko akreditatuta dagoen eskualdeko plataforma. Europako metodologia euskal errealitatera egokitu da zenbait udalerritan egindako esperientzia pilotuen bitartez. ELoGE erakundearen arteko batzordea EUDELe, Eusko Jaurlaritzak eta hiru lurraldeetako Foru Aldundiek osatzen dute.

ZEIN ERABILERA DU UDAL BATENTZAT?

Bere gobernantzaren kalitatea hobetzea eta, kalitate horrengatik, nazioarteko aintzatespen bat jasotzea, 16. GJHak proposatzen duen erakundearen etengabeko hobekuntza- eta sendotze- prozesuan.

INFORMAZIO GEHIAGO

Programa honetan parte hartzeko aldizkako deialdiak egiten dira, eta 5.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrietarako pilotu bat sartzen da.

KONTAKTUA

✉ gobernanza@eudel.eus

☎ 944 231 500

💻 eloge.eudel.eus/eus





EUDELEN INFORMAZIO- ETA LAGUNTZA-ZERBITZUA, EUROPAKO FUNTSAREN ARLOAN



ZER DA?

EUDElen informazio- eta laguntza-zerbitzua da, Europako funtsen arloan, EAEko udalek eta erakundeek aukera guztiak aprobetxa ditzaten, eraldaketa udalerrietatik bultzatzeko, behetik gora, pertsonak erdigunean izanda, Next Generation EU planaren, Estatuko Berreskurapen eta Erresilientzia Planaren eta Euskadi Next programaren deialdien esparruan.

EUDEL Next EU! zerbitzuak bi ekintza-ildotan egituratzen da:

- Aukerak: laguntzei buruzko informazioa
- Prest: administrazio eta kontrataziorako prozedurak egiteko laguntza-dokumentuak.

ZEIN ERABILERA DU UDAL BATENTZAT?

Finantziazio-aukerak eskuratzen erraztasu, 2030 Agendari eta GJHei laguntzeko proiektu eraldatzaile berriei ekiteko.

INFORMAZIO GEHIAGO

Zerbitzua etengabe ematen da.

KONTAKTUA

✉ eudel@eudel.eus

☎ 944 231 500

💻 next.eudel.eus/eus





2030 AGENDARI BURUZKO PRESTAKUNTZA ESPEZIFIKOKO PROGRAMA, UDALETAKE TEKNIKARIENTZAT (ZEHARKAKO PRESTAKUNTZA PLANA)



ZER DA?

2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburuen kokapenean oinarritutako jasangarritasun-politikak udal-mailan ezartzeko interesa duten udaletako langile teknikoei eta zuzendaritzako langileei zuzendutako prestakuntza-ikastaroa.

ZEIN ERABILERA DU UDAL BATENTZAT?

GJHen kokapenaren dimentsioei heltzeko beharrezkoak diren gaitasunak dituzten talde teknikoak izatea.

INFORMAZIO GEHIAGO

Programa 2024an garatzen hasiko da, eta IVAP-EUDEL-Foru Aldundiak Zeharkako Prestakuntza Planaren parte izango da.

KONTAKTUA

✉ prestakuntza@eudel.eus

☎ 944 231 500

💻 eudel.eus/eu/prestakuntza





Agenda 2030
Euskadiren konpromisoa

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EUDEL

EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS